

Mikel Basabe

ARALARREKO KIDEA

## Hutsezintasuna eta fededunak

**P**io IX.ak eskaturik, halaxe aldarrikatu zuen Vatikanoko I. Kontzilioak. Aita Santuak, aurrerantzean, ez du hutsik egingo. Ez behintzat dogmari dagokionean. Aita Santuak, dogma bat bere autoritate gorenari jarraiki eta eliza unibertsalaren artzain delako definitzen duenean, *ex cathedra* berba egiten du. Horrela definitu den doktrina fededun guztiak onartu behar dute. Ez da eztabaidatzen. Horrela da, eta kito.

Hori posible da, goitik beherako egitura delako eliza katolikoarena. Horretaz gainera, piramidala ere bada: goian gutxi batzuk daude eta behean fededun multzoa. Nolabait esatearren, abangoardia dago goian eta horien atzean zintzoki eta doktrina onarturik bizi direnak daude behean.

Fede dogmez eta doktrinaz berbetan ari garenez, berdin dio gero errealtateak kontrako irakaspena ematen badigu ere: dogma da eta ez dago txar-to. Orduan egin beharrekoa doktrina apurtxo bat moldatzea da.

Fededunen batek edo horietako multzo batek doktrinaren egokitasunaz zalantzak balitu, isiltzea dauka. Onartuko du ala ez, baina fededunen artean jarraitu gura badu edo fededunen artekotzat hartua izaten jarraitu gura badu, fededunak isilik geratu eta jakinarazi diotena



INIGO AZKONA

onartzea baino ez du. Gehienek horrela egiten dutenez, kongregazioak iraun egiten du.

Gauzak horrela irudituko luke gainerakook, ez fede eta ez dogma onartzen ez dugunok, alferrik irakurriko ditugula elizaren agiriak: haieran Aita Santuarentzat aldarrikatzen den hutsezintasuna gezurretakoa dela badakigu eta, hori onartzen ez dugunez, kritika egingo genieke eta, jakina, ez gintuzkete taldean onartuko. Nahikoa litzateke esatea, “bera nor dela uste du horrek, errealitatearen gainetik egia berak duela pentsatzeko?”. Halako ariketa sinplea ere eragozten du hutsezintasunaren dogmak.

Baina, hala eta guztiz ere, elizaren agiriak irakurtzea plazera izan ohi da hizkuntzaren edertasunaz gozatzen dugunontzat. Edukiari ez diogu jaramonik egin, aurretik ere esan dudan legez, euren dogma eta doktrinarekin bat ez gatozelako, errealtatearen argitan hertsatzaile irizten diegulako eta sarri askotan formula zaharkituak baino aurkitu ez ditugulako, gaur egungo arazoei erantzuteko balio ez duten iraganeko formulak. Baina hizkuntza. Hori bai ederra!

Urte askoren ondoren, argitaratu berri den azken agiria irakurri, eta sentsazio berbera izan dut: edukia alferrikoa eta hutsala. Baina erabiliriko hizkuntza, hori bai ederra! ■

«

Urte askoren ondoren, Elizak argitaratu berri duen azken agiria irakurri, eta sentsazio berbera izan dut: edukia alferrikoa eta hutsala. Baina erabiliriko hizkuntza, hori bai ederra!

»

TXANDAN

Joxerra Garzia



Elkarrekin bide luzea egina zuten arren, edo akaso horrexegatik,

bikotekideetako batek, bestearen infideltasuna tarteko, harremana etetea erabaki zuen, eta hala jakinarazi zion bikotekideari: susmoak errezero bihurtu zitzaizkiola, eta ez zegoela horrela aurrera jarraitzerik.

Handik denbora batera, bikotekide infidel ustezkoak, damu-itxura larriz, honako galdera hau egin zion bere lagunari (aurrez aurre edo telefonoz ausartzen ez, gutuna idazteko astirik ez, eta, ziur asko, e-mailez):

“Ados zaude gure bikote-liskarrari elkarrizketa bidez amaiera emateko prozesu bat bultzatzearekin, baldin eta

emateko borondatea?”.

Zutabegile hau ez baita (eta ez baitu izan nahi) orojakile, ezin esan, oraingoz behintzat, zer erantzun zion bikotekide zapuztuak infidel damutuari. Susmoa du, ordea, nekez erantzungo ziola “bai, maitea, ados nago”.

Nolanahi ere, errutinak, susmoek edo errezeroek harremana gaiztotzen dutenean, galderarik aldrebesena ere hobea da, isiltasun liskar-estalia baino, eta, kontu honetan guztian, hitza hartu edo emateari bidea itxi nahi diotenak dira susmagarrienak, nola etxean hala plazan. ■